

GG GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: ekainak 9

SERRA/  
SEURAT

MARRAZKIAK

## *Serra/Seurat. Marrazkiak*

- Datak: ekainak 9 – irailak 6, 2022
  - Komisarioak: Lucía Agirre, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna, eta Judith Benhamou, komisario independentea eta arte idazlea.
- 
- Seuraten marrazkietan garrantzi berezia du artistak erabiltzen zuen eskuz egindako paperak: “bizitza eman” zion material horri, argiak, bolumenak eta kontrasteak sortzeko behar zuen Conté arkatz kopuru justua xurga zezan utzita; horrexek bihurtu zuen, hain zuzen, marrazkigintzaren maisu.
  - Richard Serrak ere atsegin hartzen du materialetan, esaterako bere *Ramble Drawings (Ibilbide-marrazkiak)* lanetan erabili zuen eskuz egindako paper japoniarrean; paper horren fabrikazio-prozesuak eraginda, zuntzek “gorabehera” desberdinak sortzen dituzte eta, beraz, marrazki bat ere ez da bestearen berdina.
  - Seurat “artisten artista” da, haietako askok marrazkilari gisa miretsia —besteak beste, Van Gogh, Signac, Picasso eta Moorek beren garaian eta Jasper Johns eta Richard Serra garaikideek—, eta bere marrazkiak kultuko objektuak dira mundu osoko sortzaile eta bildumazaleentzat.

Guggenheim Bilbao Museoak *Serra/Seurat. Marrazkiak* aurkezten du, XIX. mende amaierako Georges Seurat maisuaren 22 marrazki haren miresle sutsu eta, zalantzarik gabe, gure garaiko artista gailenetakoa den Richard Serraren marrazkiekin bateratzen dituen erakusketa. Denbora-tarte handi batek banantzen baditu ere, biak ahala biak nabarmentzen dira marrazkia bere horretan, bestelako helbururik gabe, landu eta maila berrietara eramateagatik, marrazkiak ezaugarri berritzailez hornitu eta beren obraren beste eremu batzuetara estrapolatzeagatik.

Georges Seuraten marrazkiak estimu handian izan zituzten bere garaiko artistek, haien artean Maximilien Lucek, Vincent Van Goghek eta Paul Signacek —azken horrek “margolari batek inoiz egin dituen marrazkirik ederrenak” zirela esan zuen 1899an—, baina baita geroagoko hainbat artistak ere, besteak beste, Henri Matissek, Pablo Picassok, Henry Moorek, Bridget Rileyk eta Richard Serrak berak.

Seurat gai izan zen, oso baliabide sinpleak baliatuta, Conté arkatzaren iluntasunetik forma ezberdinak agerrarazteko paper zuriaren gainean. Horixe adierazi nahi zuen Serrak honakoa esaterakoan: “Marrazkiaren pisua ez du soilik pintura-geruzen kopuruak zehazten, baizik eta —eta batez ere— marrazkiaren formak berak. Argi dago —Mantegnaren Kristotik Cézanneren sagarretaraino— formek pisua, masa eta bolumena dakarketela berekin”.

Seuraten marrazkietan, garrantzi berezia du euskarriak berak, hau da, paperak. Artistak, gehienetan, *Michallet* papera aukeratzen zuen: Frantzia eskuz egindako paper mota bat, irregularitasunak, testura lodia eta izurdura edo gailur ñimiñoak bereizgarri zituen; ezaugarri hautemanezinak dira horiek denak gure begientzat, baina ez Seuratek paperaren gainean iristarazten zuen Conté arkatzarentzat. Marrazteko zuen

trebetasun teknikoa gorabehera, esan daiteke margolariak “sentitu” egiten zuela papera, eta bizitza ematen ziola, euskarriari argiak, bolumenak eta kontrasteak sortzeko behar zuen Conté arkatz kopuru justua xurga zezan utzita; horrexek bihurtu zuen, hain zuzen, marrazkigintzaren maisu.

Artista handiek ezaugarri duten materialaren ezagutza hori Josef Albersen ikasle zenean deskubritu zuen Richard Serrak, eta hitz hauekin adierazi zuen: “Behin oinarrizko ikasgaia ulertuta, hau da, prozedura gidatzen zuena materiala zela ulertuta, bat konturatzen zen materialak bere forma ezartzen ziola formari”.

Hala, Richard Serrak laster ikusi zuen eskulturak ez diola taillaketari, modelaketari edo galdaketari soilik men egiten, aitzitik, materialek eragin handia dutela espazioan sortzen duten esperientzian. Marrazkiari ere garrantzi handia ematen dio artistak, eta beste xede batzuetarako baliabide gisa ere erabili arren, hizkuntza autonomo bihurtzen du, eta teknika, formatu eta material berrien menpe jartzen. 2015ean hasi zuen *Ramble Drawings (Ibilbide-marrazkiak)* sailean, Serrak, Seuratek egiten zuen bezalaxe, atsegin hartzen du materialetan, esaterako eskuz egindako paper japoniarrean; paper horren fabrikazio-prozesuak eraginda, zuntzek “gorabehera” desberdinak sortzen dituzte eta, beraz, marrazki bat ere ez da bestearen berdina. Horrela, *Ramble (Ibilbide)* bat bera ere ez da beste baten berdina, artistak paperaren gainean lan egiteko duen moduagatik ez ezik, paperak berak erreakzionatzeko duen moduagatik ere.

*Ramble Drawings* horietan Serrak bi metodo desberdinekin aplikatu zuen Conté arkatz litografikoa: transferentzia bidez eta orriaren gainean zuzenean markatuta. Lehenengoaren kasuan, presio-mailak zehazten du transferentzia handiagoa edo txikiagoa den eta, beraz, obra batzuetan lanbro arin bat ematen duena, beste batzuetan masa ilun eta lauso bihurtzen da.

Aplikazio zuzenak, aldiz, aukera ematen du paperaren gainean erabilitako material koipetsuaren kopurua hobeto kontrolatzeko, eta horrek emaitza oso bestelakoak lortzea ahalbidetzen du, ñabarduraz beteak.

Serrak neurrizko tamainan sortu zituen obra horiek, baina ez zion muzin egin nolabaiteko monumentaltasuna emateari; izan ere, *Ramble* txikienetako 33 lauki-sare batean antolatzen ditu, hamaikana elementuko hiru zerrendatan banatuta. Konfigurazio horrekin, obra horiek egiteko jarraitutako prozesua ikuslearekin partekatzen du artistak, eta inprimaketa bakoitzak parerik gabeko paper-xaflen gainean sortutako efektuak antzematera bultzatzen du.

## **Funtsezko jarduera bat**

1977an Serrak berak azaldu bezala, “Marrazkia funtsezko jarduera baten kontzentrazioa da, eta adierazpenaren sinesgarritasuna norberaren esku geratzen da erabat. Landu dezakedan espaziorik zuzenena eta kontzienteena da. Hasi eta buka ikus dezaket prozesua, eta, batzuetan, baita kontzentrazioa luzaroan mantendu ere. On egiten dit. Nire lanaren iturria zertan den ulertzea ahalbidetzen didan egoera bakanetako bat da”.

Seuratentzat ere funtsezko jarduera bat zen marrazkia, eta horren erakusgarri da zein berandu ekin zion pintazeari eta zein pintura gutxi dituen, egin zituen ehunka marrazkien aldean. Bere garaikide Paul Signacek goretsi eta aitortu egiten zuen haren garrantzia: “Seuratek kontrasteari buruzko teoria zentzudun eta emankor askoa atera zuen bere estudioetatik, eta teoria hura erabili zuen bere obra guztietan. Lehenik argilunari aplikatu zion: baliabide sinpleekin —Ingres paperaren zuria eta Conté arkatzaren beltza,

trebetasunez mailakatua edo kontrastatua— lauhun bat marrazki egin zituen, margolari batek inoiz egin dituen marrazkirik ederrenak. Bere balio-zientzia perfektuari esker, esan dezakegu beltz eta zuri horiek pintura asko baino koloretsuagoak eta distiratsuagoak direla”.

Seuraten pinturak eta marrazkiak elkarrengandik aparteko munduak direla eman dezakeen arren, margolanetan erakusten duen kolorearen ezagutza sakon hori —mihisetan kolorea zatikatuta aplikatzea ahalbidetzen diona— erakutsia zuen lehenago ere bere zuri-beltzeko marrazkietan. Kolorea bera argiaren efektu bat denez, gradazio eta konbinazio kromatikoak sakonetik ezagutzeak, kolorerik ez dagoenean, beltzaren iluntasunik handiena argitzeko balio du.

Serraren 2000. urteko hitz hauek beltzari buruzko ideia hori azpimarratzen dute: “Kolore bat da. Zalantzarik gabe, kolore bat da. [...] Seuraten marrazkietan pentsatzearekin bat, koloretzat hartzen duzu beltza ezinbestean”. Georges Seurat maisu bat da bai iluntasuna bai argitasuna argitzen, are eta konplikatuago bihurtzen den lana, kontrastea txikiagoa denean zailagoa baita efektu hori lortzea. Paperaren pikorraz baliatzen den modu ia puntillista horrek “negatiboan” lan egiteko aukera ematen dio zenbaitetan.

## Eboluzio etengabea

Erakusketa honetan Seuraten marrazkien eboluzioa antzeman daiteke Lehmann-en eskolatik igaro ondoren; eta, are gehiago, eskola, eta horrekin batera bide “tradizionala”, utzi eta gero. Atzean geratu ziren, baita ere, soldadutzan egin zituen marrazkiak —koloretako arkatzeekin margotuak, batzuk—, Bresteko koaderno ezagunetan bilduak. Marrazki horiek agerian uzten dute artistak akademizismoarekin behin betiko hausteko bidea eta bere lengoaiaren heldutasun garaiaren hasiera.

*Bikotea eserita* (*Couple Asiss*, 1881 inguru) eta *Alkandora hutsean* (*En bras de chemise*, 1881 inguru) marrazki txikiek, hauek ere koaderno batean egindakoak ziurrenez, agerian uzten dute delineatu tradizionala zeharo baztertzeko bere saialdiak, itzalezadura diagonal marratu baten bidez, lerro labur etenez inguratuta. *Bi zaldi uztarran* (*Attelage à deux chevaux*, 1882–83) lanean mugimendu labur eta nahasiekin zirrimarratzen du forma nagusiaren masa, bi zaldiena eta zaldizainarena, eta antzeko trazuekin — baina Conté arkatz dentsitate gutxiagorekin— orri osoa hartu eta *continuum* bat sortzen du, trazuaren norabide-aldaketek eta materialaren kontzentrazioak bakarrik ñabartua.

Antzeko zerbait gertatzen da *Lanpara* (*La Lampe*, 1882–83) lanean, nahiz eta emaitza nabarmenagoa izan; Conté arkatzaren ilunpe sakonean emakumezko irudiaren lepoa eta kokotsa desagerrarazten ditu, lanparak haren aurpegia itzalezatatu eta presentzia har dezan, eszenaren gainerakoan ia argirik proiektatzen ez bada ere.

Seuraten marrazkiak eboluzio bizkorra izan zuen bere helduaroan, eta horren erakusgarri dira, garai horretako zuri-beltzeko paisaiak ez ezik —modernotasun inpresionista dariena, besteak beste, *Bideko horma* (*Basoa*) [*Le Mur du chemin* (*La Forêt*), ca. 1883] eta *Uretan islatutako zuhaitz-enborrak* (*Stéphane Mallarméri omenaldia*) [*Troncs d'arbres se reflétant dans l'eau* (*Hommage à Stéphane Mallarmé*), ca. 1883/84]—, irudi etzanak, eseriak, edo gau argi batean paseatzen ageri direnak ere, esaterako *Ibiltokia* (*Promenoir*, ca. 1882) marrazkian agertzen direnak.

Seuratek bere ibilbide laburraren azkenera arte jarraitu zuen paperaren gainean esperimentatzen eta lan egiten, eta hori argi ikusten da bere pinturan, eta antzemangarria da ere erakusketa honetako obretan, esaterako: *'Udako igandea Grande Jatte uhartean' lanerako estudioa: gona baten xehetasuna* (*Étude pour 'Un dimanche d'été sur l'île de la Grande Jatte': détail de jupe*, 1884–85) eta *Ilunabarra, Gravelines* (*Un Soir, Gravelines*, 1890). Seuratek ziztuan egin zuen paisaia horren zirriborroa, baina argiluna sortzeko eta paperaren gainazal osoa hartzeko aukera galdu gabe.

Erakusketako ibilbideari *Bela zuria* (*Le voile blanche*, 1890) eszena ederrak ematen dio azkena; bere azkenetako marrazki bat, non konposizioan nagusi den bela txiki batetik jariatzen den argia. Marrazki horretan artista frantsesak joritasunez erakusten ditu xehetasunak eta paperaren azkeneko bazterra ere erabiltzen du, Richard Serrak *Rambles Drawings*-etan egiten duen moduan, eta solas bizigarria sortzen da horrela bi artisten artean.

## DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan, Museoak gune didaktikoak, online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu erakusketa bakoitzaren osagarri izateko, eta ikusgai dauden obrak balioesten laguntzen duten tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu horrela.

*Serra/Seurat, Marrazkiak* Didaktika bi artistek erabilitako tekniken eta materialen ingurukoa da, bi kasuetan funtsezkoak baitira paperaren aukeraketa, bere testura eta tamaina, marrazteko tresnak eta beltzaren erabilera kolore bakar gisa.

Informazio gehigarriaz gain, hezkuntza-gunean bisitariak gune berezi batetan, ukimenaren bidez modu askotako paper klasikoaren eta oraingoaren testurak eta gramajeak ezagutzeko aukera izango du. Gainera, bi atal gaitu dira dokumental- eta elkarrizketa-zatiak proiektatzeko, Seuratek beste artista garaikide batzuegan izandako eragina eta Richard Serrarentzat marrazkiak duen garrantzia agerian uzten dutenak.

## Erakusketari loturiko jarduerak

### **Aurkezpen-solasaldia** (ekainak 7)

Erakusketaren komisario Judith Benhamou eta Lucía Agirre elkarrizketan arituko dira Artearen Historiako bi erreferente handiren bitartez marrazkiari omenaldia egiten dion erakusketa honi buruz.

### **Hausnarketa partekatua**

Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza arloetako profesionalek eskainitako bisitaldi paregabe hauetan erakusketen edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dira.

- Arte-arduradunen ikuspegia (ekainak 15). Lucía Agirrek, Museoko arte-arduraduna eta erakusketaren komisarioa den aldetik, ibilbide bat egingo du erakusketan zehar.
- Funtsezko kontzeptuak (ekainak 29). Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza eta Interpretazio Koordinatzailea, bertaratuekin solasean arituko da erakusketari lotutako gai orokorre eta hezkuntzarekin lotutakoei buruz.

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

**Sorkuntza-saioa: eskuz egindako papera** (ekainak 30)

Papergintzako maisu eta paper-ingeniari Juan Barbé Arrillagak papera eskuz egiteko teknika partekatuko du helduentzako hastapen-ikastaro honetan.

## KATALOGOA

Erakusketarekin batera katalogo ilustratu bat editatuko da, bi egileen obrak bilduko dituena, baita komisarioen hiru saiakera ere, Georges Seuratak eta Richard Serrak marrazkia xedetzat hartu izanaren inguruan, hartara ezaugarri berritzaileez hornitu eta baliabide hau maila berrietara eramanda.

### Azaleko irudia:

#### Georges Seurat

*Uretan islatutako zuhaitz-enborrak (Stéphane Mallarméi omenaldia) [Troncs d'arbres se reflétant dans l'eau (Hommage à Stéphane Mallarmé)], 1883-84*

Conté arkatza paper gainean

22,7 x 31 cm

Villa Flora, Winterthur; mailegu iraunkorra Hahnloser/Jaeggli Foundationi, Winterthur.

### Argibide gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta komunikazio arloa

Tel: +944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Prentsak erabiltzeko irudiak  
***Serra / Seurat. Irudiak***  
Guggenheim Bilbao Museoa

## Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Serra/Seurat. Irudiak* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2022ko ekainaren 9tik irailaren 6ra egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoen bidez ([media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)).

## Georges Seurat


*Bi zaldi uztarrarian (Attelage à deux chevaux)*, 1882–83

Conté arkatza paper gainean

23 x 30 cm

Musée de la Faïence et des Beaux-arts Frédéric-Blandin, Nevers

Argazkia © RMN-Grand Palais / Gérard Blot



## Georges Seurat

*Lanpara (La Lampe)*, 1882–83

Conté arkatza paper gainean

30,5 x 24 cm

Henry Moore Family Collection



## Georges Seurat

*Arlotea (Vagabond)*, ca. 1883

Conté arkatza paper gainean

31,1 × 20,7 cm

Museum of Fine Arts, Budapest



## Georges Seurat


*Uretan islatutako zuhaitz-enborrak (Stéphane Mallarméri omenaldia)*

[*Troncs d'arbres se reflétant dans l'eau (Hommage à Stéphane Mallarmé)*], 1883-84

Conté arkatza paper gainean

22,7 x 31 cm

Villa Flora, Winterthur; mailegu iraunkorra Hahnloser/Jaeggli Foundationi, Winterthur.



## Georges Seurat

*Gizona etzanda (Bainua, Asnières'lanerako estudioa) [L'homme couché (étude pour "Une Baignade, Asnières")]*, 1883-84

Conté arkatza paper gainean

24,5 x 31,5 cm

Fondation Beyeler, Riehen/Basel, Sammlung Beyeler  
Argazkia: Peter Schibli



## Georges Seurat

*Bela zuria (La voile blanche)*, 1890

Conté arkatza paper gainean

25 x 33 cm

Bilduma pribatua



## Richard Serra

*Ibilbidea 3-51 (Ramble 3-51)*, 2015

Conté arkatza litografikoa eta pastel-hautsa eskuz egindako  
paper gainean

54,6 x 74,9 cm

Artistaren bilduma

Obra © Richard Serra/Artists Rights Society (ARS), New York  
Argazkia: Robert McKeever





# ĀĪ GUGGENHEIM BILBAO

## Richard Serra

*Ibilbidea 3-54 (Ramble 3-54)*, 2015

Conté arkatz litografikoa eta pastel-hautsa eskuz egindako  
paper gainean

50,2 x 64,1 cm

Artistaren bilduma

Obra © Richard Serra/Artists Rights Society (ARS), New York

Argazkia: Robert McKeever



## Richard Serra

*Ibilbidea 4-26*, 2015


Conté arkatz litografikoa eta pastel-hautsa eskuz egindako paper  
gainean

90,2 x 93,3 cm

Artistaren bilduma

Obra © Richard Serra/Artists Rights Society (ARS), New York

Argazkia: Robert McKeever



## Richard Serra

*Rambles* erakusketaren ikuspegia, 2015

33 obra, Conté arkatz litografikoa eta pastel-hautsa eskuz egindako  
paper gainean

Artistaren bilduma

Obra © Richard Serra/Artists Rights Society (ARS), New York.

Argazkia: Zarko Vijatovic

